ASTEKARIA - 2008ko apirilaren 11n - XII. urtea - Usurbil, 318. zenbakia

www.noaua.com

# Noaua!!



Baxurde Txiki triatloi taldea osatu da Usurbilen




# Larunbat honetan, antzerkia kalean


berriak 5 urte
Eskualdez eskualdeko ekitaldiak
• BERRIAk 5 urte. Bideoa
• Hitzaldia. Aurrera begirako erronkak
• Mokadua
berria
luzatu bostekoa
BURUNTZALDEAKO EKITALDIA
Apirilak 15, asteartea, 20:00etan
Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean
Zatoz
gurekin ospatzera!


ALKARTASUNA Kooperatiba
100urte
Logotipo lehiaketaren
Irabazlea: IÑAKI EIZAGIRRE
ALKARTASUNA
Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba
Ugarte Industrialdea 12 Usurbil 20170 Gipuzkoa
100
URTE
hurbilago
Alkartasuna Kooperatiba Hurbilago dago
ERRAUSKETARIK EZ
LURRA BASERRIA HERRIA
BIZIRIK
Alkartasuna Elkartea Baserritar Kooperatiba | alkartasuna@usurbil.com | 943 361 114

## Albistea iruditan !!

# Atxegalden aparkatzea, ez da lan erraza

Arazoa ez da gaurkoa, baina okertzen doa egoera. Geroz eta ibilgailu gehiago eta aparkaleku kopuru bera. Atxegalden aparkaleku bat aurkitzea ez da lan erraza, askoz konplexuagoa asteburuetan. Espaloiak norbere ibilgailua uzteko gune inprobisatuetan bihurtu dira. Lanegunetan aldiz, ibilgailu mugimendu handiagoa izanik hutsune gehiago egoten da. Auzokide baten baino gehiagoren kexa iturri da arazo hau. Irudiko aparkalekua bezala. Bizilagun askok lurreko marrak margotzea eskatzen dute, aparkatzerako unean ibilgailua nola utzi jakiteko erreferentziarik ez baitute eta gune horretako tarte asko alferrik galtzen da. Eta beraz, ibilgailua espaloi gainera…



APARKATZEKO ERREFERENTZIA ARGIRIK EZ DAGO, HORREGATIK BIZILAGUN ASKOK LURREKO MARRAK MARGOTZEA ESKATU DUTE.

## Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Intza Salsamendi, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

# Aurkibidea

LARUNBATEAN, ANTZERKIA KALEAN ______ 5. OR.

KATAMALOREN SAIOA SUTEGIN ______ 10. OR.

MARTXOAREN 9KO BESTE BOZKAK ______ 12. OR.

TRIATLOI TALDEA OSATU BERRI DA ______ 15. OR.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARAZ

Euskal presoak



Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza














JOXE PIÑAS

# Haizea badabil

Ostiral arratsalde eguzkitsua geratu da. Hau dela eta aitonak bere bilobari bueltatxo bat ematea proposatu dio. Bilobak zazpi urte dauzka apenas eta amaren baiezkoa entzun eta gero Anarrekaruntz abiatu dira biok.

Bidetik, aitona herriko ezagun batekin hitz egiten geratzen da:

- Noaua!

- Bilobarekin Anarrekara bueltatxo bat ematera nitxek. Ta hi, zemuz habil?

- Laneko kontuekin bueltaka. Lantegian gauzak ez dituk lehen bezala. Orain lankiderik ez zegok, bakoitza bere lanpostua mantentzera ziek soilik, elkartasunik ez zegok eta garai batean batzuk lortu zituzten eskubideak galtzen ari gaituk.

Badoaz aitona eta biloba Anarreka barrualdera:

- Ikusten duzu aitona? Haranerreka izena du toki honek, ez "Anarreka".

- (Hau ere aldatu ote zaigu?) Pentsatzen du aitonak.

"Haranerreka"-ko bigarren iturria pasa eta gero basurde bat ikusten dute! Baina basurdea, aitona deskolokatuta utzita, ihes egin beharrean beraiengana hurbiltzen da laztanen bila.

Erreka ondoko eserleku batean esertzea erabaki eta gero haize freskoa altxatzen hasi da. Orduan bilobak aitonari esaten dio:

- Aitona! Honetaz konturatu naiz: belarrean etzanda jartzen banaiz, haizeak ez dit ukitzen eta hotzik ez dut pasatzen.

Aitonak, segundo batzuetan isilik eta pentsakor geratu eta gero, txapela buruan ondo doitzen eta patxadaz zutitzen bilobari honela erantzuten dio:

- Matxinsalto txikia...

- Ehhhhh???

- Ezer ez, ahaztu matxinsaltoarena. Biloba, ikusi eta ikasi... eta ondo entzun esan behar dizudana: egia da etzanda bazaude haizea sentitzen ez duzulako hotza ez duzula pasako. Baina jakin ezazu lehen behintzat basurde batek haizearen esker arriskua nondik zetorren usaindu zezakeela, eta oraindik erleek loreak non dauden asmatzen dutela. Eta haizeari esker enara batek eguzkiaren epeltasunaren bila egunero 400 kilometro egin ditzake. Gizakiak haize hotza eta kontrakoa izan dueneán aurrez aurre begiratzea ikasi du, haizearen norabidearekin bat egiteko berriro. Azken finean bizitzan bidea egiteko haizea sentitzen eta ulertzen ikasi dugu. Baina horretarako ausarta izan behar da eta etzan egon beharrean zutik iraun behar dugu. Haizearen mugimenduaren esker bideak sortzeko eta ibiltzeko aukera daukagu.

Etxerako bueltan hego haizeak jotzen hasi du.

Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - **Joxe Piñas** - Unai Agirre

Hemeroteka!

## Hernaniko N-1 irteera itxi egin dute Lasarten, urtebeterako

N-1 karretera nazionalean, Lasarte parean, itxi egingo dute Hernanira irtetzeko bide-adarra. Gipuzkoako Foru Aldundiko Azpiegitura sailak eman zuen jakitera, eta gaineratu zuen urtebetez itxiko dutela bidea, bihar (apirilak 9) 22:00etatik aurrera. Bidea ixteko arrazoia da Donostiako bigarren sahiesbideko biaduktu bat egiteko obrak egingo dituztela hor.

**Hernanira joateko, 454 irteera**

Hernanira joan nahi duenak geroxeago irtetzeko aukera izango du, 454 irteera erabilita. Irteera hori erabilita lehen iritsiko ginen puntu berdinera iritsiko gara, Errekaldera, eta handik Galarretarako bidea hartu GI-2132.

**Hernaniko Kronika,**
**2008ko apirilaren 8an.**

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.
Hurrengo alea: apirilak 18. Idatzia ekartzeko azken eguna: apirilak 14.

## Herria itxuraldatuko du

# Lehen Kale Antzerki Egunak

**Apirilak 12, 12:00etan frontoian. Orduan hasiko da Lehen Kale Antzerki Eguna Usurbilen. Ixabel Agirresarobek eta Alex Tellok, Udalaren laguntzaz azken hilabeteetan prestatu duten jaia abiatuko da. Denetariko kultur adierazpenak ikusi ahal izango dira egun osoz. Gauerdia igaro arte, kaxkoko kaleek inoiz ikusi gabeko itxura, bizitasuna izango dute. Antolatzaileen mezua argia da: "Egun horretan denok kalera".**


DONOSTIAKO KOLDO MITXELENAN AURKEZTU ZEN KALE ANTZERKI EGUNA.

**NOAUA. Antzokiko emanaldi batetik zertan bereizten da kaleko antezlana?**

**Alex Tello.** Hasteko, kale antzerkia testuinguru urbano baina naturalean egiten da. Betiko kaleek beste izaera bat hartzen dute. Denetarik dago; emanaldi oso ikusgarriak, gauza txikiak baina indar handikoak…

**N. Zer esan antolatu dituzuen ekitaldien inguruan?**

**A. T.** Publiko guztientzako da eta hurbiltzen denak gozatuko du. Talde amateurrak eta profesionalak nahastu ditugu.

**Ixabel Agirresarobe.** Helburua, herria aztoratzea da. Monotonia puskatzea.

> **ALEX TELLO**
>
> "Larunbatean, gure betiko testuingurua, kaleak... oso eraldatuta, bizirik ikusiko ditugu"

**N. Zirkuito moduko bat proposatzen diguzue?**

**A. T.** Egitarauan, dena kaxkoan dago. Oinezkoentzat ez daude distantzia handiak. Ibiltariak diren emanaldiek ez ohiko lekuetara eramango gaituzte. Jendea anima dadila. Antzerkia leku guztietan egongo da.

**N. Eta emanaldietan denok parte har dezakegu?**

**A. T.** Antzezleren bat haien aurretik pasatzen ikusten duenak, jendeak jarrai diezaiola. Zerbait esaten badizute, erantzun. Nornahik herrian zerbait egin nahi badu, kultur adierazpen bat, aurrera.

**N. Hau dena antolatzea lan luzea da. Nolatan ekin zenioten?**

**A. T.** Ixabel eta biok irailean hasi ginen elkarrekin lanean, Tolosaldean antzezlan bat egin genuen. Herriaz eta antzerkigintzaz hitz egiten hasi ginen. Herria asteburuetan triste dagoela, plazako giroa galtzen ari zela… Hor bururatu zitzaigun festa hau antolatzeko ideia.

**N. Kale Antzerki Eguna jarraipen bat izateko bokazioz sortua da.**

**A. T.** Lehen edizioa ospatuta aztertu beharko da, baina asmoa urteroko jaia izatea da. Udaberrian kale antzerkiak funtzionatzen badu, esparrua zabalduko dio, jaialdiak udan izaten baitira.

**N. Zer nolako aurreikuspena egin dezakezue, oraindik lehen edizioa ospatzeke dagoela jakinda?**

**A. T.** Egun horretan ezin dugu etxean geratu, denok kalera atera behar dugu. Goza dezala jendeak. Gure betiko testuingurua, kaleak oso eraldatuta, bizirik ikusiko ditugu.

**I. A.** Kezkatuta nago zer bizitza gutxi egiten den kalean. Eta nik kaleko bizitza asko maite dut. Larunbatean, Usurbil oinezkoen herria izan dadila.

### Txerriki, usurbildarrak kaleko antzezle

**Kale Antzerki Egunaren testuinguruan sortu da Usurbilen, Txerriki antzerki taldea. Larunbat honetan, kaxkoan arituko dira eguerdiko 13:00ean.**

**NOAUA! Herritarrak ere, kalean antzezten ikusiko ditugu.**

**A. T.** Eguneroko lagunak eta bizilagunak antzezten ikusiko ditugu. Ez taula gainean, kalean eta kaleetatik baizik. Aurpegi ezagunak izango dira. Herritarrekin interakzioa izango dute.

**N. Ezusteko handia izango al da?**

**A. T.** Ezusteko handia eta ia herritarrengan zer erreakzio eragiten duen.

**N. Pozik taldea osatuta?**

**I. A.** Dudarik gabe. Jendea gogoz gelditu da, batzuek emanaldi egunean ezin baitute egon.

**A. T.** Ez dugu deialdi irekia egin. Talde txiki bat osatu nahi genuen.

**N. Aurrera begira, jarraitzeko asmoa?**

**A. T.** Asmoa badago. Herrian antzerkia egin edo ideiak proposatu nahi dituen edonorentzat irekia dago taldea. Talde hori herrian antzerkigintzarako gogoa dagoenaren adibidea da.



# Azulkillas, grabitateari desafioka

**Grabitatea jolas bihurtu dute Maider Yabarrek eta Gloria Peonek. Azulkillas konpainiako kide dira biak. Airean zein lur gainean akrobaziak egiten iaioak dira eta larunbat honetan forma geometrikoekin jolastuko dute Lehen Kale Antzerki Egunean. Erakustaldiko zatirik onena amaierarako gorde digute. 17:00etik aurrera ikusgai frontoian.**



AKROBAZIAK EGITEN IAIOAK DIRA AZULKILLAS TALDEKOAK.

**NOAUA! Grabitateari bueltaka arituko zaretela iragartzen duzue.**

**Maider Yabar.** Guk egunero grabitatea desafiatzen dugu, zazpi metroko egiturara igota. Grabitatearekin jolasten dugu egunero. Trapezioan eta ibiltzen garenez…

**N. Usurbilen zer nolako saioa eskainiko duzue?**

**M. Y.** Bi pertsonaia forma geometrikoekin jolasten gara. Airera eramaten ditugu. Karratu eta uztai handi bat airean ditugula ibiltzen gara. Lurrean dantza eta jolas batzuen bidez, bi formek eta guk bat egiten dugu. Hasieran bakoitza bere aldetik aritu ostean, elkarrekin lan egiten bukatzen dugu. Arrakasta handia duen trapezioaren erakustaldiarekin amaitzen da saioa.

**N. Arrakastatsua, sarituak izateraino?**

**M. Y.** Vilanova i La Geltrun (Herri Katalunak) eta 2005ean Leioan saritu ziguten.

**N. Zirkoa edota antzerkigintza. Nondik sentitzen zarete hurbilago?**

**M. Y.** Biak lantzen ditugu. Usurbilen gehienbat zirkoa landuko dugu. Nahiz saioko bi pertsonaiei formekin ere zerbait gertatzen zaien. Berez, zirko eta antzerki konpainia bat gara. Kasu honetan, emanaldia ikusgarriagoa izango da, oso polita.

**N. Emanaldi asko eskaini dituzue?**

**M. Y.** Ez ditugu guztiak zenbatuta, baina ehunetik gora izango dira. Aurtengo denboraldiko lehen saioa, Usurbilen eskainiko dugu. Jendea animatu eta etor dadila, ikuskizun ederra izango baita.

**MAIDER YABAR, AZULKILLAS**

"Lehen herriko jaietan gehiago aritzen ginen, baina orain kale antzerki jaialdi gehiagotan egiten dugu lan"

**N. Prestakizun lanek ahalegin handia eskatuko dizuete?**

**M. Y.** Ofizio honekin etengabe ikasten ari gara. Zirkora dedikatzen bazara, zure eguneroko asmoak hobetzea eta gauza politago eta zailagoak egitea izan behar dute. Horretarako egunero eskolara joan eta entrenatu beharra dago.

**N. Gogorra?**

**M. Y.** Gogorragoa litzateke niretzat goizeko zortzietan esnatu eta lantegira joan beharra izatea. Ogibide guztiak dira gogorrak. Diziplina handiko lana da hau. Konpainia batek guztia zuzentzen du. Geure kasuan ordea, geuk mamitu, egosi eta jaten dugu guztia.

**N. Zer nolako osasuna du kale antzerkiak?**

**M. Y.** Jaialdiak ugaritzen ari dira. Poliki-poliki jaialdi gehiago sortzen ari dira. Oso egokiak eta beharrezkoak dira guretzat, geure lana egin eta erakusteko bitartekoak baitira. Jaialdirik gabe, ezin geure lana erakutsi. Lehen, herriko jaietan gehiago aritzen ginen, baina duela pare bat urtetik geroz eta kale antzerki jaialdi gehiagotan lan egiten dugu. Ni gipuzkoarra naiz. Gertutasun horregatik, Usurbilen lan egitea oso pozgarria da.

**N. Txoko ugari bisitatzeko aukera ere izan duzue?**

**M. Y.** Asko. Ikasteak mundua ezagutzera behartu gaitu. Niretzat opari bat izan da.

***Azulkillas taldea 17:00etan arituko da frontoian.***

ARITZ GORRITI

# Alproja, pertsonaiak aurkitu eta eraikitzen

## Emanaldiaren lehen zatia ibiltaria da eta umorezko eszena batekin amaituko da

**Ispilu aurrean jarri eta norberak bere islada ikusi, bilatu eta aurki dezake. Ispiluaren beste alde hori, gu geu bilatzen ahaleginduko dira Zarauzko Alproja taldekoak "Aurki" saioarekin. 19:00etan hasita Dema plaza inguruan.**



AINHOA ALBERDI, ALPROJA TALDEKO KIDEA, ANTZEZPEN BATEAN.

**NOAUA! "Aurki" zuen lanaren izena. Zer aurkituko dute ikusentzuleek?**

**Ainhoa Alberdi.** Aurkitze bat, bilatze bat izango da, pertsonaia batena. Bilatze horretan aktorea ispilu parean aurrez aurre jartzea, ispiluaren beste aldea, atzekaldea ezagutzeko, geu alegia, denok eta denon isladak.

> **AINHOA ALBERDI, ALPROJA**
>
> "Ongi etorria izan dadila Kale Antzerki Eguna. Larunbatean, herria ez da betikoa izango"

**N. Ibiltaria izango da?**

**A. A.** Emanaldiaren lehen zatia ibiltaria da. Pertsonaia bakoitza bere aldetik doa. Modu neutroan sakabanatzen dira, baina bere oztopo eta mugak gainean dituztela. Bidean egiten ditugun galderekin muga horiek puskatu nahi ditugu. Plazara iristerako, batzuk bidean oztopoak galduak izango ditugu, gainerakoek plazan galduko dituzte. Bilutsik topatzen gara, aurrez aurre pertsonaia eraikitze horretan. Amaieran umorezko eszena bat izango da.

**N. Ikus entzuleen artean zer nolako erreakzioa bilatu nahi duzue?**

**A. A.** Antzerkia haien barrenera iristea. Emanaldia hasi baino lehen bezala ez geratzea, norbere barruan zerbait mugitzea. Jendea etor dadila eta antzerkiarekin goza dezala.

**N. Usurbilen euskaraz. Baina emanaldia katalanez ere eskaini izan duzue?**

**A. A.** Bartzelonako Euskal Etxeko arduradun Aitor Arruti zarauztarrak luzatu zigun gonbita. Bakoitzak bizpahiru esaldi soilik esan behar genituenez, egitea posible zela iruditu zitzagun. Grabazio baten bidez prestatu genuen. Baina Zarautzen edo Bartzelonan antzeztea ez da gauza bera. Zarautzen Kale Antzerki egunetan eskaintzen dugu emanaldia. Bartzelonan ordea kalean dabilen jendea ez doa antzerkia ikustera. Hala ere primeran sentitu ginen, oso esperientzia positiboa izan zen.

**N. Zarautzen tradizio luzea du jada Kale Antzerkiak. Nola ikusten duzu jaiotzear den Usurbilgo Kale Antzerki Eguna?**

**A. A.** Primeran ikusten dut, ongi etorria izan dadila. Antzerkigintza nire pasioa da, bizitzaren zati handienetako bat. Gainera, hurbileko herri batean izatea, pozgarria da. Egun horretan, energia bat dago, herriko zirrikitu guztietara iristen dena. Herria ez da betikoa. Airean zerbait sumatzen da.

**N. Zarauzkoa hamabosgarren edizioaren atarian da. Nola oroitzen duzu sorrera urtea?**

**A. A.** Lehen urteetan ez nintzen egon, baina egun bat izaten zen. Hasieran dirua hala moduz lortzen zen, eskatzen ibilita. Oso jaialdi umila zen. Taldekideei entzunda, taberna batean ipuinak kontatzen zituzten. Ekitaldi pare batekin osatzen zen jaialdia eta taberna barruan egiten zen, ez kalean. Jaialdia hazten zihoan neurrian, Udalak lan hori errekonozitu eta laguntza indartzen joan zen. Diru gehiagorekin, hiru egunez osatutako jaialdia antolatzen da egun. Horrek lan handia eskatzen du. Emanaldiak aukeratu, zerk funtziona dezakeen ikusi… Etengabeko ikasketa da.

***Alproja taldea 19:00etan arituko da Dema plazan***



# Ekitaldiz betetako eguna



IKUSKIZUN EZBERDINEKIN GOZATZEKO AUKERA IZANGO DA LARUNBAT HONETAN.

### Pierre Vissler eta Dominika Rekalt: “Clowns pilotariak”

**Non:** 12:00etan frontoian.

**Jatorria:** Montori eta Altzai (Zuberoa).

**Sinopsia:** Egiazko pilota partiden denboran sartzen dira protagonistak. Hitza baino gehiago erabiltzen dute mimoa. Ikusleak haien mundu burlesko eta poetikora daramatzate.

### 13:00ean, Txerriki taldea: “Txarraka… show!”

**Non:** Kaskoan.

**Jatorria:** Usurbil.

**Sinopsia:** Kalera irten eta dendak, tabernak… pasa ditut. Atsegin dut herriko kaleetatik lasai ibili eta jendeari, ezagun zein ezezagunei kasu egitea. Zenbaitetan ez dute kasu egiten. Ezagun jatorrak arrotz jokatzean zer egin? Kalera irtendakoan, inork nire bakea urratzea ez dut gogoko.

### 14:00-16:00, herriko musika taldeen emanaldia

Despervicio, Xau eta Odolaren Mintzoa.

**Non:** udaletxe aurreko plazan.

**Laguntzaileak:** Zendoia Taberna eta Euskadiko Kutxa.

### 16:30ean, Lau Mimo taldea: “20 minutu”

**Non:** Artzabalen.

**Jatorria:** Donostia.

**Sinopsia:** Umorea, poesia eta gorputz-adierazpena, ikuspegi koreografikotik landua. Adin guztietako herritarrei zuzendua.

### 17:00etan, Azulkillas taldea: “Grabitateari bueltaka”

**Non:** Frontoian.

**Jatorria:** Donostia-Asturias.

**Sinopsia:** Aire ikuskizunari lotutako akrobaziak egingo dituzte. Airean zein lurrean, ikuskizuneko bi protagonistak gorputz geometrikoekin jolasten dira. Tresnen bidez, grabitate indarrari aurre egiteko modua erakutsiko digute. 2005.urtean estreinatu zenetik dagoeneko 80 emanaldi baino gehiago eskaini dituzte.

### 18:15ean, Kolax taldea: “Bixotzerrenak”

**Non:** Kaskoan.

**Jatorria:** Pasaia.

**Sinopsia:** Gizakiaren argiuneak eta itzalak aztertzen dituzte Bixotzerrenek. Itsusitasuna ispilu aurrean jarri eta guztia, edertasun, egiazko eta poetikoan bihurtzen den erakutsi nahi dute. Zaborra arakatzen dute, kalean bizi baitira eskale gisa. Iragan guztia gurditxo txiki batean dutela. Jendeak miserable gisa begiratzen diete. Norbere bihotzaren zaborra islatuta ikusten ari direla jabetu gabe.

### 19:00etan, Alproja taldea: “Aurki”

**Non:** Dema plazan.

**Jatorria:** Zarautz.

**Sinopsia:** Bidaia hastera doa. Zer aurkituko dugu? Ispiluan islatzen dena edo ez dena? Galdera asko baina erantzunik ba ote? Mugen bakardadetik elkartasunera, elkartasunetik batasunera. Helburua aurkikuntza, erditzea.

### 20:00etan, Atikus taldea: “Meloien kamioia heldu da!”

**Non:** Kaskoan.

**Jatorria:** Etxauri (Nafarroa).

**Sinopsia:** Meloi saltzailearen kamioia kalez kale dabil herrian. Antzerki-lana ikusi nahi duenak kamioira gerturatu beharko du. Bertan meloi-saltzaile familia bat egongo da, gogotsu lanean. Haien barne-bizitza eta irudimenezko mundua erakutsiko dute.

### 24:00etan, Hortzmuga: “12K”

**Non:** Kaskoan eta Dema Plazan.

**Jatorria:** Zaratamo (Bizkaia).

**Sinopsia:** Ikuskizun mugikorra, kalejira bat da. Mota guztietako ikuslego eta espazioetara moldatzen dena. Kalea itxuraldatu eta askatasuna zoramen gisa plazaratzen dute, arau naturalak eta hierarkiak irauliz. Inauterietan errotzen da. Bufoi eta erregeen arteko harremanaren inguruan eraikitako ikuskizuna da.

***Oharra:** euria egingo balu, ekintzak frontoian egingo lirateke.*

# Usurbilen ospatuko da Gipuzkoako Bertso Eskolen Eguna

**Gipuzkoako Bertso Eskolen V. Eguna Usurbilen ospatuko da. Datorren asteko igandean izango da, hilaren 20an hain zuzen. Jolas eta ekitaldi ugariz osatu dute egitaraua.**

Goizeko 10:30ean hasiko da Bertso Eskolen Eguna. Dema plazan bilduko dira Gipuzkoa osotik etorriko diren neska-mutilak. Kamiseta bana oparituko zaie eta taldeetan elkartuko dira. Goizeko 11:00etan hasi eta bazkari ordua bitarte, froga eta jolas ezberdinetan hartuko dute parte. Arratsaldean, 14 urte azpiko gaztetxoek Kike Amonarriz aurkezleak zuzenduko duen ekitaldian hartuko dute parte. 14 urte gorako bertsozaleek, aldiz, Gu ta Gutarraken saioaz gozatu ahal izango dute Sutegin. Eserlekurik soberan geratzen bada, usurbildarrok ere saioa doan ikusteko aukera izango dugu.



2005EAN HASI ZIREN BERTSO ESKOLEN EGUNA OSPATZEN.

### Eskolarteko Bertsolari Txapelketa ere, Usurbilen

Bertsozale gazteen hilabetea izango da hauxe. Apirilaren 20an Bertso Eskolen Eguna ospatuko da eta apirilaren 25ean, Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa. Eta biak Usurbilen. Eskolarteko Bertsolari Txapelketa arratsaldeko 15:00etan hasiko da eta Udarregi ikastolan zein Oiardo kiroldegian jokatuko da.

# Ziortza aisialdi taldea udako kanpaldia prestatzen hasi da

Bederatzi eta hamasei urte bitartean badituzu, eta uztailean primeran pasatzeko gogoa baduzu, Ziortzak udako kanpaldian izena ematera gonbidatu nahi zaitu. Begirale gisa joan nahi baduzu ere, animatu eta jarri Ziortzarekin harremanetan.

Edozein kasutan izena emateko deitu 638 524 710 telefono zenbakira edo bidali e-maila helbide honetara: ziortzage@gmail.com



KANPALDIRA JOATEKO DEIA ZABALTZEAZ GAIN, BEGIRALEAK BILTZEKO DEIA ERE EGIN DU ZIORTZAK.

## Bardeak ezagutzeko irteera antolatu da

Nafartarrak taldeak antolatu du igande honetan egingo den irteera. Goizeko 7:30ean abiatuko dira kiroldegitik. Bardeetan zehar bi orduko ibilaldia egin eta gero, Tuteran bazkalduko dute. Iluntzerako Usurbilen. Izena emateko: 665 746 158.

2000. urtean, Unescok Biosferaren Erreserba Mundiala izendatu zituen Nafarroako Bardeak.



## Igandean, Erroizpe elkartearen batzarra

Apirilaren 13an igandea, Txokoaldeko Erroizpe Elkarteak urteko Batzar Nagusia egingo du. Bazkideei bertaratzeko deia egin zaie. Batzar Nagusia 11:00etan hasiko da eta hamaiketakoa ere izango da.

Industri eta iragarki
SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA
Kamisetan inprimaketa
943 371 954
UGALDEA POL.36-2-USURBIL

MIKEL IZAGIRRE
ELEKTRIZITATEA
943 365 095
609 068 111
GOIZ ARGI ETXEA, 37. KALEZAR

Otar-Goxo
Elikagaiak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

ALIPROX
Kale Nagusia 10
943 361 182
USURBIL

## Poesia eta musika eskutik datoz

# Katamalo ikuskizunean

**Datorren astean, hilak 17, Katamalo ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dugu. Gutxitan izan ohi da Bihotz Bakartien Klubeko kideek prestatu duten moduko saioa ikusteko aukera. Hitzak doinuari erakusten dio bidea, eta alderantziz. Katamalo poema liburu baten izena da, baita CD baten izenburua ere. Batekoak eta bestekoak uztartzen dira zuzeneko ikuskizunean. Goiburuak dioen bezala, poesia eta musika eskutik datozela, alegia. Hainbat saio eskaini dituzte eta Sutegira sasoi betean iritsiko dira. Hala adierazi digu Gotzon Barandiaran bizkaitar idazleak.**



KATAMALOREN SAIOA IKUSTEKO SARRERAK SALGAI DAUDE TXIRRISTRAN ETA NOAUA!N.

## "Erakutsi dezakegun ederrena eta xumeena azaltzeko sasoi betean iritsiko gara Sutegira"

**NOAUA. Poemak eta gero iritsi ziren doinuak. Eta hitzak eta abestiak josiz, Katamalo ikuskizuna. Zaila izan al zen literaturatik eta musikaren mundutik datozen sortzaileen lanak uztartzea?**

**Gotzon Barandiaran.** Egia esan ustekabean korapilatutako soka izan da guztia. Bihotz Bakartien Klubekook urteak generamatzan poesia zuzeneko emanaldietan konpartitzen. Gorka Urbizu (Berri Txarrak) oso literaturazalea da, batik bat, poesiazalea, eta ezagun zuen Arrakalak, gure aurreko emankizuna, eta esan zigun pozik hartuko zuela parte antzeko egitasmoren batean. Menturaz nik idatzita nituen gerora Katamalo liburua osatu duten poemetako asko eta bihotz Bakartien Klubeko kideen artean poema horiekin zerbait egiteaz ari ginen berbetan. Lehen korapiloa. Sasoi horretan bertan, Korrika Kulturaleko arduradunek literatura eta musika uztartuko zituen ikuskizuna prestatzeko eskaria egin ziguten. Bigarren korapiloa. Korrika Kulturalerako emanaldiak egiten hasi eta berehala kulturaren eragile batzuek deika hasi zitzaizkigun. Emanaldiak egin ahala, kantuek oso harrera ona zutela konturatu ginen eta emanaldiotara zetozen entzuleek grabatzeko asmorik geneukakeen galdetzen ziguten. Hirugarren korapiloa. Gor disketxeari proposatu, baiezkoa jaso, grabatu eta gaur arte. Oso prozesu naturala izan da, poesiak ahalbidetu eta musikak gauzatu duena. Bihotz Bakartien Klubaren proiektuetan poesia eta musika gogaide izan dira beti, ez dute elkar zanpatzeko asmorik izan.

**N. Ikuskizun honetan, zertan baldintzatu du hitzak musika? Izan ere, musikalki oparoa da egiten duzuen eskaintza. Ez dela laua, alegia...**

**G. B.** Ez, ez da laua, eta horren zergatia aztertzen hasi eta konturatu gara berbetatik sortutako kantuak direlako ez dela laua. Musikariek poema andana batetik aukeraketa egin eta poema horiek iradoki, pentsarazi, sentiarazi diedanaren arabera sortu dute musika. Musikarien artean, ohikoa izaten da lehenengo musika sortu eta gero hitza egokitzea (musikariak baitira, ez idazleak). Oraingoan, ordea, iruntzietara izan da eta poema batek tristura sorrarazi badie musikak tristura adierazi du, poemak bizipoza ekarri badie musikak beste hainbeste. Poemen bozeramaile zintzoa izan da musika.

**N. Sutegira ibilbide luze baten ondoren iritsiko zarete.**

**G. B.** Asmo handiustekorik gabeko egitasmoa izan da gurea eta oso pozik gaude izaten ari garen harrerarekin. Egun ez da batere erraza jendea zuzeneko emanaldietara biltzea eta gure neurri apalean, uste genuena baino entzule gehiago hurbiltzen ari zaizkigu. Gero eta kontzertu gehiago eman, gero eta gusturago aritzen da bat eta Usurbilera loretan iritsiko garelakoan gaude, erakutsi dezakegun ederrena eta xumeena azaltzeko sasoi betean.

# Katamalo, garenaz eta ez garenaz hausnartzeko modua

Mozorroa. Bizkaieraz, katamalo. Gotzon Barandiaran idazle bizkaitarrak Katamalo poema liburua kaleratu zuen 2007ko azaroan. Horrekin batera, Euskal Herriko hainbat musikarik liburu horretako poema batzuk musikatu zituzten eta izen bereko CDa kaleratu. Disko horretako kantuak eta Gotzon Barandiaranen poemak entzungo ditugu Sutegin. Prentsan behin eta berriz irakurri dugun moduan, “ez garena azaldu beharraz, lotsaz, harrokeriaz, sakon maitatzeko beldurraz, itxurakeriaz” dihardute abestietako hitzek. Berri Txarrak taldeko Gorka Urbizu (ahotsa eta gitarra), Nerea Urbizu (pianoa, kajoia eta ahotsa), Alex Arregi (gitarra eta ahotsa), Aintzina Lekue (bibolina) eta Itxaso Etxebeste (baxua) arituko dira zuzenean.

**Ikuskizuna:** 'Katamalo'
**Taldea:** Bihotz Bakartien Kluba.
**Noiz:** Apirilaren 17an osteguna.
**Non:** Sutegin, 20:00etan.
**Sarrera:** aldez aurretik 5 euro, Txirristran eta NOAUA!ko egoitzan. Egunean bertan, 6 euro. NOAUA!ko bazkideentzat 4 euro, NOAUA! egoitzan bertan eta aldez aurretik erosita.
**Antolatzailea:** NOAUA! Kultur Elkartea.
**Laguntzailea:** Usurbilgo Udala.


Katamalo, diskoaren aurkezpenean.

# Felix Aizpurua Literatura Lehiaketan parte hartzeko garaia

**Usurbilgo Udalak Felix Aizpurua Literatura Lehiaketaren edizio berri bat jarri du martxan. 8 eta 16 urte bitarteko usurbildarrek parte har dezakete lehiaketan. Apirilaren 30ean amaituko da lanak aurkezteko epea.**

Udarregi ikastolako haurrei lehengo astean banatu zitzaizkien lehiaketaren oinarriak. Bide batez, 2007ko edizioan sarituak izan ziren lanekin osatu den liburua ere argitaratua izan da eta hori ere banatu da ikasleen artean.

Gogoan izan 8 eta 16 urte bitarteko usurbildarrei zuzenduta dagoela Felix Aizpurua Literatura Lehiaketa. Lanak apirilaren 30a baino lehen bidali behar dira Udal Euskara Zerbitzura. Informazio gehiago honako telefono zenbakian: 943 371 999.



Iazko lanekin osatu duten liburua ere banatzen hasi da Usurbilgo Udala.

# Berria egunkariaren aldeko ekitaldia

Ekainaren 21ean bost urte beteko ditu Berria egunkariak. Apirilaren 15ean hasi eta ekainaren 21a bitarte, hainbat ekitaldi egingo dira eskualdez eskualde. Ekitaldien helburua bikoitza da: Berria sortzeko egindako lana eskertzea eta aurrera begirako proiektuak aurkeztea. Guztira 22 ekitaldi egingo dira, beste hainbeste eskualdetan. Lehena apirilaren 15ean, asteartea, egingo da: Buruntzaldean. Ekitaldia Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean egingo da, iluntzeko 20:00etan. Bertara eskualdeko harpidedunak, akziodunak, gizarte eragileak, kultur ordezkariak, erakundeetako ordezkariak, komunikabideetako kideak.... daude gonbidatuta.






# Martxoaren 9ko beste bozkak

**Espainiako Gorteetarako hauteskundeak egin zirenetik, hilabete pasa da. Emaitzen berri egunean bertan eman genuen noaua.com webgunean. Emaitza horiek martxoaren 14ko astekarian ere aipatu genituen. Honakoan, ordea, oharkabean pasa ohi diren alderdietan erreparatu nahi izan dugu. Ohiko alderdietaz gain, aukeran, baziren bestelako alderdiak ere: falangistak, karlistak, tradizionalistak, zezenketen aurkakoak, motorzaleak... Eta ikusiko duzuen moduan, Usurbilen ere jaso zuten aldeko bozkarik.**



BABES TXIKIKO ALDERDI UGARIK JASO ZITUZTEN BOZKAK MARTXOAREN 9KO HAUTESKUNDEETAN.

Kongresurako hauteskundeetan alderdi asko aurkeztu ohi da, baina gehiengoa ordezkaritza eskuratzeko bozka kopurutik oso urrun geratzen da. Bazterrean geratzen diren babes txikiko alderdi horien sorburua, kasuan kasu, oso ezberdina da.

Proposamen ugari dago, harrigarriak kasu batzuetan. Badira ezagunak diren proposamenak baina gehienak guztiz ezezagunak dira. Zer arraio ezkutatzen ote da alderdi horien guztien atzean? Hona Usurbilen botorik jaso duten beste alderdi politiko horien deskribapena.

**UPyD**
**UNION, PROGRESO Y DEMOCRACIA**
**www.upyd.es**
Rosa Diezen alderdia da. Sozialisten buruzagi ohiak Madrilen lortu du ordezkaritza, denera 300.000 bozka pasatxo.
**Bozkak Usurbilen: 9.** Gipuzkoan: 2.556.

**B-LV**
**BERDEAK -LOS VERDES**
**www.verdes.es**
Espainian, Europako ekologisten alderdiko ordezkariak dira. Komunismotik edota sozialdemokraziatik datozen ezkerren aurrean, hirugarren alternatiba izan nahi dute. Ezker Batuarekin ez dauka zerikusirik, beraz.
**Bozkak Usurbilen: 8.** Gipuzkoan: 1.932.

**PACMA**
**PARTIDO ANTITAURINO CONTRA EL MALTRATO ANIMAL**
**www.pacma.es**
Zezenketen aurkako taldea alderdi txikien artean babes zabalena dutenen artean dago. YouTube Internet atarian ipinitako bideoak ERC edota EAJ alderdietakoak baino bisita gehiago izan ditu. Pozik agertu dira lortutako 41.000 bozkekin. Horrela laburtzen da haien poza: "Animaliek irabazi dute!".
**Bozkak Usurbilen: 7.** Gipuzkoan: 1.044.

**PFyV**
**FAMILIA Y VIDA**
**www.partidofamiliayvida.es**
Balore tradizionalen defendatzaile sutsuak; "Familia gizonezkoak eta emakumezkoak osatutakoa da, seme alabekin batera. Familia elementu naturala eta ezinbestekoa da eta gizartearen nahiz estatuaren babesa izateko eskubidea du". Denera, 9.000 bozka.
**Bozkak Usurbilen: 6.** Gipuzkoan: 405.





# Falangistak, karlistak, ekologistak, motorzaleak...

**AMD**
**ALTERNATIVA MOTOR Y DEPORTES**
**www.amd.org.es**
Politikoak ez direla diote, baina haiek konpontzeko gai ez diren hainbat arazoei irtenbidea aurkitzeko lan egiteko prest daude. Dagoeneko 2009ko Europako hauteskundeetako kanpaina prestatzen ari dira. Auto gidariez osatuta, zirkuitu publikoak eskatzen dituzte, besteak beste.
**Bozkak Usurbilen: 4.** Gipuzkoan: 372.

**FE de las JONS, FALANGE ESPAÑOLA de las J.O.N.S.**
**www.fe-jons.es**
Aurkezpenik behar ez duen alderdia. Eskuin muturreko alderdia, orain lau urteko emaitzekin alderatuta zertxobait hazi dena.
**Bozkak Usurbilen: 2.** Gipuzkoan: 81.




PACMA zezenketen aurkako alderdiak animalien aldeko kanpaina ezberdinak bideratzen ditu. Alderdi honek Usurbilen 7 bozka bildu zituen.

**PUM+J**
**POR UN MUNDO MAS JUSTO**
**www.porunmundomasjusto.com**
Alderdia ideologia ezberdineko pertsonek osatuta dagoela aitortzen dute, helburu zehatzarekin: pobreziarik gabeko lurraren alde lan egitea. Garapen bidean dauden herriekiko laguntza eraginkorra bideratzea lortu behar dela diote.
**Bozkak Usurbilen: 1.** Gipuzkoan: 620.

**P.C.**
**PARTIDO CARLISTA**
**www.partidocarlista.com**
Maiatzean 175 urte herri borrokan beteko dituztela diote. Alderdiaren arrastoak Gipuzkoan eta Nafarroan geratzen dira. Espainian 2.000 boto besterik ez.
**Bozkak Usurbilen: 1.** Gipuzkoan: 238.

**C's**
**CIUDADANOS**
**PARTIDO DE LA CIUDADANIA**
**www.ciudadanos-cs.org**
Ciudadanos alderdiak bere burua alderdi politiko ezberdin bezala aurkezten du. Estatuko politikagintza eraberritu nahi duen mugimendua da, hiritar askeak osatuta. Katalunian izan zuen sorburua eta ondoren Espainiara zabaldu da. Erkidego ezberdinetan estatutuak aldatzeko saiakeren aurka sortutako alderdia da.
**Bozkak Usurbilen: 1.** Gipuzkoan: 183.

**AES**
**ALTERNATIVA ESPAÑOLA**
**www.alternativaespanola.com**
Printzipioak berreskuratzeko alderdia, "Bizitza, familia, gure jatorri kristaua, Espainia… bizitza publikotik at dauden printzipioak eta baloreak dira". Orain lau urte sortu zen.
**Bozkak Usurbilen: 1.** Gipuzkoan: 61.





# Andatza Mendi Elkarteak
# Usurbilgo mugak ezagutzeko aukera eskaini nahi digu

**Andatza Mendi Elkarteak, urtero apirilean egin ohi duen bezala, ibilaldi neurtua antolatu du. Baina aurtengo ibilaldia, azken bolada honetako berezienetakoa izango da. Usurbilgo mugak ezagutzeko aukera eskainiko digulako. Apirilaren 20an igandearekin egingo da gure bazterrak ezagutzeko mendi irteera.**



USURBILGO MUGAK EZAGUTZEKO AUKERA APARTA IZANGO DUGU APIRILAREN 20AN. ARGAZKIA: CARLOS JIMENEZ.

Apirilaren 20ko ibilaldia Usurbilen hasi eta Zubietara abiatuko da lehenik. Handik, Bugatitik gora, Andatza mendiari bira emango zaio Etumeta eta Oiardo pasaz, Txokoaldera jaitsi eta Erriberatik Aginagako Mapileraino. Berriz ere aldapa gora ekin, eta Orioko Bentako mugaraino joango da, handik aurrera, Mendizorrotza aldetik Egioletara jaitsi eta Donostiako mugen ondotik, Aritzetatik Txikierdira. Troiatik Kalezarrera igo eta kaxkoan emango zaio amaiera.

## Izen-ematea, egun berean

Izen ematea egun berean egingo da udaletxe aurrean, bertatik emango zaio hasiera mendi-irteerari. Goizeko 7:00etan abiatuko dira eta 8 orduko iraupena izango du. Ibilbidearen erdialdera, mendizale orok indarrak hartu eta bideari jarraitzeko, jateko zein edateko nahikoa izango du Andatza Mendi Elkartearen eskutik.

Ibilaldiaren bukaeran, partehartzaile guztien artean mendiko materiala zozketatuko da. Beraz, opari eta guzti etxeratuko dira asko eta asko.

Ibilbidean zehar sorospen zerbitzuak egongo dira, sor daitezkeen beharrei erantzun ahal izateko.

## XXXVI. Pilota Txapelketa

**APIRILAK 11 OSTIRALA, 19:00ETAN**
**Kadeteak**
Etxaniz-Aizpuru (Azpeitia) /
Mendizabal-Ugalde (Usurbil-Oiartzun)

Loidi-Maiza (Añorga) /
Loperena-Beola (Oiartzun)

**APIRILAK 12 LARUNBATA, GOIZEZ,10:30**
**Jubenilak**
Jauregi-Lertxundi (Añorga) /
Xabi-Perez (Zaramaga)

Urkia-Ituarte (Lasarte-Oria) /
Odriozola-Irastorza (Oiartzun)

**Nagusiak**
Zelaia-Legarreta (Amezketa) /
Olangua-Resano (Iruñea)

**APIRILAK 13 IGANDEA, GOIZEZ, 10:30**
**Nagusiak**
Andreu-Irureta (Elgeta) /
Urtasun-Azanza (Iruñea)

Zerezo-Uharte (Bera) /
Jauregi-Berroeta (Maeztu)

Arraztoa-Landiribar (Burlata) /
Agirrezabala-Urdanpilleta (Oiartzun)

** Pilota partida denak Usurbilgo frontoian*





## Usurbil KE taldeari esker, sagardotegira afaltzera

Usurbil KE eskubaloi taldeak zozketa ugari egin ohi ditu partidetara hurbiltzen diren ikusleen artean. Duela bi aste, **Joxe Antonio Altuna** eta **Santi Zumeta** izan ziren garaileak. **Saizar sagardotegian** birentzat afaria irabazi zuten.

Aurreko asteburuan, ordea, **Manuel Martin** izan zen birentzat afaria irabazi zuena. **Urdaira sagardotegian** tokatu zaio afaria Manueli. Zorionak denei!

### Azken emaitzak

**Martxoaren 29ko jardunaldia**

| | |
|---|---|
| **1. Territ.** | Egia 32-Usurbil KE 26 |
| **2. Territ.** | Zarautz 29-Usurbil KE 27 |
| **Jubenil m.** | Usurbil KE 39-La Salle 31 |
| **Jubenil m.** | Urola 34-Usurbil KE 23 |
| **Kadete m.** | Usurbil KE 48-Bergara 30 |

**Apirilaren 5eko jardunaldia**

| | |
|---|---|
| **1. Territ.** | Usurbil KE 27-Zarautz 32 |
| **Jubenil m.** | Usurbil KE 23-Ereintza 38 |
| **Kadete m.** | Urola 26-Usurbil KE 39 |
| **Jubenil n.** | Arrate14-Usurbil KE 24 |

# Baxurde Txiki, triatloi denboraldia hasteko prest

**Haientzat denboraldia hasi eta dagoeneko talde gisa kirol probatan parte hartzen hasi diren arren, aurkezpen ofiziala pasa den apirilaren 3an egin zuen Baxurde Txiki Triatloi Taldeak. Udaletxe aurrean bildu ziren, kirol taldeko arropa estreinatu berriekin. Ilusioz, talde gisa izango duten lehen kirol urteari ekiteko prest dira.**



AURTENGOA LEHEN DENBORALDIA IZANGO DA BAXURDE TXIKI TALDEARENTZAT.

Baxurde Txiki kirolari hauek osatzen dute: Beñat Sagarzazu Sanchez, Iñigo Guadix Vivas, Jon Carbayeda Etxeberria Berreyarza, Martin Larrañaga Amutxastegi, Ion Korta Arregi, Javier Alonso Dominguez, Mikel Otaegi Irastorza, Jose Maria Otamendi Gaztañazpi, Peio Sasiain Martinez, Jose Manuel Algorta Mayoz, Pablo Sainz De Baranda Aramendi, Jokin Errasti Murua, Iñaki Añorga Unanue, Koldo Huegun Zapirain.

**NOAUA! Baxurde Txiki izenarekin bataiatu duzue kirol talde berria.**

**Jon Korta.** Asmoa Usurbilgo Triatloi Taldea izena jartzea zen. Baina errejistroan ez zela posible zioten. Geure helburua Usurbilgo armarria agertzea zenez, eta bertan baxurde bat ageri denez, hortik dator izena. Gauetik goizera sortu zen ideia.

**Joxe Manuel Algorta.** Baxurde Zahar eta Baxurde izenak hartuta zeuden. Horregatik Baxurde Txiki izena jarri genion.

**N. Triatloi taldea izateak proba desberdinetan parte hartzeko aukera zabala emango dizue?**

**J. M. A.** Proba asko sartzen dira hor; maratoiak, krosak, mountain biken ibiltzea. Triatloia izena da. Hiru kirol modalitateetan batera aritzea politena da niretzat, baina horrek ez du esan nahi hirurak bakarrik egin behar direnik.

**J. K.** Hiru kirol modalitate horietan (korrika, bizikletan eta igeri) arituko gara, baina baita duatloi probatan eta kirol modalitate bakarrean ere.

**N. Taldearen osaketari dagokionez, nola bildu zarete?**

**J. K.** Lau bat gaude orain hastera goazenak eta beste sei betidanik haien kontutik ibili izan dira. Usurbilgo talderik ez zegoenez, guk laurok taldea nola sortu genezakeen galdetzen hastean, gainerako seirek denok biltzea proposatu zuten. Behin hamar partaide bildu ginenean, taldea sortzeko asmoa bakoitzak bere ezagunen artean zabaldu zuen. Jendeak honen berri izan duen neurrian, beste lau gehitu dira.

**N. Orain hamalau zarete. Taldea irekita duzue partaide berrientzat?**

**J. M. A.** Herrikoa denak nahi duenak parte hartu dezala. Gu gustora. Triatloia bakarkako kirola da, bakoitzak bere helburuak ditu eta bakoitzak ahal duen neurrian entrenatu behar du.

**N. Talde berri bat sortzen denean ez da ikusten lehenagotik martxan jartzeko egin ohi den lana. Ez da gutxi ezta?**

**J. M. A.** Dei pila egin beharra batzuei eta besteei. Estatutuak egitea izena errejistratzeko, esponsorrak bilatzea, dosierrak bidali… Baina gustura egin dugu.

**J. K.** Burokrazia asko.

**N. Proba batzuk hasi dira, triatloikoak ez ordea. Noiz duzue hasiera?**

**J. K.** Duatloi probak hasi dira. Batzuk maiatzaren 3an hasiko gara Senperen. Besteak IronMan probekin ekingo diote denboraldiari.

**J. M. A.** Batzuk Lanzarotera doaz, besteok hilabete bukaeran Elchera.

**N. Herrian bertan probarik izan gabe, hutsunea nabari al duzue?**

**J. M. A.** Zerbait egiteko asmoa badugu. Jende gazteak lan egiteko gogoa du eta nik ere bai. Laguntza batzuekin ia egiten dugun.

## Euskal Herriko Itzulia Usurbila iritsiko da ostiralean

Astelehenean hasi zen Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia eta ostiralean Usurbildik igaroko da. Bosgarren etapak N-634 errepidea zeharkatuko du. Txirrindulariak arratsaldeko 16:10ak aldera Usurbila ailegatzea aurreikusten da. Txikierdi aldetik iritsiko dira. Atzerapen handiegirik ez bada, 16:20ak aldera Aginagan behar lukete. Eta handik Orio aldera joko dute, Gasteizen hasi eta 162 kilometro luze izango dituen etapa bertan amaitzeko.

### N-634 errepidean adi ibili

Beraz, ordu horretan N-634 errepidetik igaro behar duena adi ibili dadila, etapa herritik igaro artean trafikoarentzat itxiko dute eta.

# Autobus Ordutegia

## Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN

| Donostia | Urbil | Usurbil | Orio | Zarautz |
|---|---|---|---|---|
| 07.40 | >> | 08.05 | 08.15 | 08.25 |
| 08.10 | >> | 08.35 | 08.45 | |
| 08.40 | >> | 09.05 | 09.15 | 09.25 |
| 09.10 | 09.30 | 09.35 | 09.45 | |
| 09.40 | >> | 10.05 | 10.15 | 10.25 |
| 10.40 | >> | 11.05 | 11.15 | 11.25 |
| 11.40 | >> | 12.05 | 12.15 | 12.25 |
| 12.10 | 12.30 | 12.35 | 12.45 | |
| 12.40 | >> | 13.05 | 13.15 | 13.25 |
| 13.10 | 13.30 | 13.35 | 13.45 | |
| 13.40 | >> | 14.05 | 14.15 | 14.25 |
| 14.10 | 14.30 | 14.35 | 14.45 | |
| 14.40 | >> | 15.05 | 15.15 | 15.25 |
| 15.10 | 15.30 | 15.35 | 15.45 | |
| 15.40 | >> | 16.05 | 16.15 | 16.25 |
| 16.40 | >> | 17.05 | 17.15 | 17.25 |
| 17.40 | >> | 18.05 | 18.15 | 18.25 |
| 18.10 | 18.30 | 18.35 | 18.45 | |
| 18.40 | >> | 19.05 | 19.15 | 19.25 |
| 19.10 | 19.30 | 19.35 | 19.45 | |
| 19.40 | >> | 20.05 | 20.15 | 20.25 |
| 20.15 | 20.35 | 20.40 | 20.50 | 21.00 |
| 21.00 | 21.20 | 21.25 | 21.35 | 21.45 |
| 22.15 | 22.35 | 22.40 | 22.50 | 23.05 |

00.00 Aiora jarraitzen du

| Zarautz | Orio | Usurbil | Urbil | Donostia |
|---|---|---|---|---|
| 06.45 | 06.55 | 07.05 | >> | 07.30 |
| 07.15 | 07.25 | 07.35 | >> | 08.00 |
| 07.45 | 07.55 | 08.05 | >> | 08.30 |
| 08.15 | 08.25 | 08.35 | >> | 09.00 |
| 08.45 | 08.55 | 09.05 | >> | 09.30 |
| | 09.30 | 09.40 | 09.45 | 10.10 |
| 09.45 | 09.55 | 10.05 | >> | 10.30 |
| | 10.30 | 10.40 | 10.45 | 11.10 |
| 10.45 | 10.55 | 11.05 | >> | 11.30 |
| 11.45 | 11.55 | 12.05 | >> | 12.30 |
| 12.45 | 12.55 | 13.05 | >> | 13.30 |
| | 13.30 | 13.40 | 13.45 | 14.10 |
| 13.45 | 13.55 | 14.05 | >> | 14.30 |
| | 14.30 | 14.40 | 14.45 | 15.10 |
| 14.45 | 14.55 | 15.05 | >> | 15.30 |
| | 15.30 | 15.40 | 15.45 | 16.10 |
| 15.45 | 15.55 | 16.05 | >> | 16.30 |
| | 16.30 | 16.40 | 16.45 | 17.10 |
| 16.45 | 16.55 | 17.05 | >> | 17.30 |
| 17.45 | 17.55 | 18,05 | >> | 18.30 |
| 18.45 | 18.55 | 19.05 | >> | 19.30 |
| | 19.30 | 19.40 | 19.45 | 20.10 |
| 19.45 | 19.55 | 20.05 | >> | 20.30 |
| 20.45 | 20.55 | 21.05 | 21.10 | 21.30 |
| 21.15 | 21.25 | 21.35 | 21.40 | 22.00 |

00.00 Aiatik dator

## Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

| Donostia | Urbil | Usurbil | Orio | Zarautz |
|---|---|---|---|---|
| 08.00 | 08.20 | 08.25 | 08.35 | 08.45 |
| 09.00 | 09.20 | 09.25 | 09.35 | 09.45 |
| 10.00 | 10.20 | 10.25 | 10.35 | 10.45 |
| 11.00 | 11.20 | 11.25 | 11.35 | 11.45 |
| 12.00 | 12.20 | 12.25 | 12.35 | 12.45 |
| 13.00 | 13.20 | 13.25 | 13.35 | 13.45 |
| 14.00 | 14.20 | 14.25 | 14.35 | 14.45 |
| 15.00 | 15.20 | 15.25 | 15.35 | 15.45 |
| 16.00 | 16.20 | 16.25 | 16.35 | 16.45 |
| 17.00 | 17.20 | 17.25 | 17.35 | 17.45 |
| 18.00 | 18.20 | 18.25 | 18.35 | 18.45 |
| 19.00 | 19.20 | 19.25 | 19.35 | 19.45 |
| 20.00 | 20.20 | 20.25 | 20.35 | 20.45 |
| 21.00 | 21.20 | 21.25 | 21.35 | 21.45 |
| 22.00 | 22.20 | 22.25 | 22.35 | 22.45 |
| 22.30 | 22.50 | 22.55 | 23.05 | 23.15 |
| **LARUNBAT GAUETAN** | | | | |
| 00.00 | >> | 00.25 | 00.35 | 00.45 |
| 01.00 (U) | >> | 01.25 (U) | 01.35 (U) | 01.45 (U) |
| 02.00 | >> | 02.25 | 02.35 | 02.45 |
| 04.00 | >> | 04.25 | 04.35 | 04.45 |
| 05.00 (U) | >> | 05.25 (U) | 05.35 (U) | 05.45 (U) |
| 06.00 | >> | 06.25 | 06.35 | 06.45 |

| Zarautz | Orio | Usurbil | Urbil | Donostia |
|---|---|---|---|---|
| 06.45 | 06.55 | 07.05 | 07.10 | 07.30 |
| 07.45 | 07.55 | 08.05 | 08.15 | 08.40 |
| 08.45 | 08.55 | 09.05 | 09.15 | 09.40 |
| 09.45 | 09.55 | 10.05 | 10.15 | 10.40 |
| 10.45 | 10.55 | 11.05 | 11.15 | 11.40 |
| 11.45 | 11.55 | 12.05 | 12.15 | 12.40 |
| 12.45 | 12.55 | 13.05 | 13.15 | 13.40 |
| 13.45 | 13.55 | 14.05 | 14.15 | 14.40 |
| 14.45 | 14.55 | 15.05 | 15.15 | 15.40 |
| 15.45 | 15.55 | 16.05 | 16.15 | 16.40 |
| 16.45 | 16.55 | 17.05 | 17.15 | 17.40 |
| 17.45 | 17.55 | 18.05 | 18.15 | 18.40 |
| 18.45 | 18.55 | 19.05 | 19.15 | 19.40 |
| 19.45 | 19.55 | 20.05 | 20.15 | 20.40 |
| 20.45 | 20.55 | 21.05 | 21.15 | 21.40 |
| 21.45 | 21.55 | 22.05 | 22.15 | 22.40 |
| **LARUNBAT GAUETAN** | | | | |
| 23.15 | 23.25 | 23.35 | >> | 00.00 |
| 00.15 (U) | 00.25 (U) | 00.35 (U) | >> | 01.00 (U) |
| 01.15 | 01.25 | 01.35 | >> | 02.00 |
| 02.15 (U) | 02.25 (U) | 02.35 (U) | >> | 03.00 (U) |
| 03.15 (N) | 03.25 (N) | 03.35 (N) | >> | 04.00 (N) |
| 04.15 (U) | 04.25 (U) | 04.35 (U) | >> | 05.00 (U) |
| 05.15 | 05.25 | 05.35 | >> | 06.00 |

00.00 Larunbat LANEGUNETAN bakarrik (U) Udan bakarrik 08/06/23-08/09/07 (N) Neguan bakarrik

# Tren Ordutegia

| Zarautz | Orio | Usurbil | Donostia |
|---|---|---|---|
| 06.08 | 06.15 | 06.24 | 06.39 |
| 06.38 | 06.45 | 06.54 | 07.09 |
| 07.08 | 07.15 | 07.24 | 07.39 |
| 07.38 | 07.45 | 07.54 | 08.09 |
| 08.08 | 08.15 | 08.24 | 08.39 |
| 08.38 | 08.45 | 08.54 | 09.09 |
| 09.08 | 09.15 | 09.24 | 09.39 |
| 10.08 | 10.15 | 10.24 | 10.39 |
| 11.08 | 11.15 | 11.24 | 11.39 |
| 12.08 | 12.15 | 12.24 | 12.39 |
| 12.38 | 12.45 | 12.54 | 13.09 |
| 13.08 | 13.15 | 13.24 | 13.39 |
| 13.38 | 13.45 | 13.54 | 14.09 |
| 14.08 | 14.15 | 14.24 | 14.39 |
| 14.38 | 14.45 | 14.54 | 15.09 |
| 15.08 | 15.15 | 15.24 | 15.39 |
| 15.38 | 15.45 | 15.54 | 16.09 |
| 16.08 | 16.15 | 16.24 | 16.39 |
| 16.38 | 16.45 | 16.54 | 17.09 |
| 17.08 | 17.15 | 17.24 | 17.39 |
| 17.38 | 17.45 | 17.54 | 18.09 |
| 18.08 | 18.15 | 18.24 | 18.39 |
| 18.38 | 18.45 | 18.54 | 19.09 |
| 19.08 | 19.15 | 19.24 | 19.39 |
| 19.38 | 19.45 | 19.54 | 20.09 |
| 20.08 | 20.15 | 20.24 | 20.39 |
| 21.08 | 21.15 | 21.24 | 21.39 |
| 22.08 | 22.15 | 22.24 | 22.39 |
| 22.38 | 22.45 | 22.54 | 23.09 |

| Donostia | Usurbil | Orio | Zarautz |
|---|---|---|---|
| 05.47 | 06.03 | 06.14 | 06.20 |
| 06.17 | 06.33 | 06.44 | 06.50 |
| 06.47 | 07.03 | 07.14 | 07.20 |
| 07.17 | 07.33 | 07.44 | 07.50 |
| 07.47 | 08.03 | 08.14 | 08.20 |
| 08.17 | 08.33 | 08.44 | 08.50 |
| 08.47 | 09.03 | 09.14 | 09.20 |
| 09.47 | 10.03 | 10.14 | 10.20 |
| 10.47 | 11.03 | 11.14 | 11.20 |
| 11.47 | 12.03 | 12.14 | 12.20 |
| 12.17 | 12.33 | 12.44 | 12.50 |
| 12.47 | 13.03 | 13.14 | 13.20 |
| 13.17 | 13.33 | 13.44 | 13.50 |
| 13.47 | 14.03 | 14.14 | 14.20 |
| 14.17 | 14.33 | 14.44 | 14.50 |
| 14.47 | 15.03 | 15.14 | 15.20 |
| 15.17 | 15.33 | 15.44 | 15.50 |
| 15.47 | 16.03 | 16.14 | 16.20 |
| 16.17 | 16.33 | 16.44 | 16.50 |
| 16.47 | 17.03 | 17.14 | 17.20 |
| 17.17 | 17.33 | 17.44 | 17.50 |
| 17.47 | 18.03 | 18.14 | 18.20 |
| 18.17 | 18.33 | 18.44 | 18.50 |
| 18.47 | 19.03 | 19.14 | 19.20 |
| 19.17 | 19.33 | 19.44 | 19.50 |
| 19.47 | 20.03 | 20.14 | 20.20 |
| 20.47 | 21.03 | 21.14 | 21.20 |
| 21.47 | 22.03 | 22.14 | 22.20 |

00.00 Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN 00.00 Astelehenetik Igandera eta JAIETAN
(U) Udan bakarrik 08/06/23 - 08/09/07

Bezeroen arretarako bulegoa ✆ 902 54 32 10 www.euskotren.es ⓘ attcliente@euskotren.es

## Eguneko goardiako farmaziak

**Apirilak 10, osteguna**
Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

**Apirilak 11, ostirala**
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

**Apirilak 12, larunbata**
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil*

**Apirilak 13, igandea**
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

**Apirilak 14, astelehena**
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

**Apirilak 15, asteartea**
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

**Apirilak 16, asteazkena**
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

**Apirilak 17, osteguna**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Apirilak 18, ostirala**
Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte

**Apirilak 19, larunbata**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

**Apirilak 20, igandea**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

*GOARDIAKO FARMAZIA,GAUEZ*
*Correa Farmazia (22:00-09:00), Perkaiztegi kalea, 8 Hernani 943 33 60 22*
**Usurbilen, soilik eguerdira arte*

## Zubieta-Donostia TST autobusak

**ASTEGUNETAN**
**Zubieta-Donostia**
7:55*/ 9:30(T) / 13:15(T)
14:35*(T) / 19:15(T)

**Donostia-Zubieta**
(Gipuzkoa plazatik)
7:15* /9:00 / 12:45(T)
13:45* /18:45

**LARUNBATETAN**
**Zubieta-Donostia**
8:15(T) / 12:45
15:15(T) / 21:35(T)

**Donostia-Zubieta**
**(Gipuzkoa plazatik)**
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

**JAI EGUNETAN**
**Zubieta-Donostia**
11:25(T) / 13:30(T)
15:30(T) / 21:35 (T)

**Donostia-Zubieta**
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T) / 13:00(T)
15:00(T) / 21:00 (T)

T: Autobus aldaketa beharrezkoa da
*: Eskola egunetan / Tf. 943 36 17 40

## Agenda

### Apirilak 10 osteguna
**Adimen urritasuna duten pertsonei buruzko hitzaldia.** 18:00etatik aurrera Sutegin.

### Apirilak 12 larunbata
**Kale Antzerki Eguna Usurbilen.** Eguerditik gaua bitarte.

### Apirilak 13 igandea
**Bardeetara irteera.** Irteera, 7:30ean kiroldegitik abiatu eta itzulera 20:30ak aldera. Bi orduz Bardeetan ibilaldia. Bazkaria Tuteran. Antolatzailea: Nafartarrak. Izena emateko: 665 746 158.

### Apirilak 17 osteguna
- **Nola jokatu gure seme-alabekin familien aldaketen aurrean,** hitzaldia. 17:00etan Udarregi ikastolan, Juan Carlos Alonso psikologoaren eskutik.
- **Katamalo ikuskizuna,** 20:00etan Sutegin. Sarrera aldez aurretik, 5 euro (Txirristran eta NOAUA!ko bulegoan). Egunean bertan, 6 euro. NOAUA!ko bazkideek, aldez aurretik erosita, 4 euro. Antolatzailea: NOAUA! Kultur Elkartea. Laguntzailea: Udala.

## KzGuneko ikastaroak

### Apirilak 11 ostirala
**"Sinadura Elektronikoa"** ikastaroa. 9:00etatik 11:00etara.

### Apirilak 15/ 16
**"Irudi digitalen tratamendua I"**, Asteartea-asteazkena, 9:00etatik 11:00etara. Gaztelaniaz.

### Apirilak 16 asteazkena
**"Sinadura Elektronikoa"** ikastaroa. 11:00etatik 13:00etara.

### Apirilak 17/ 18
**"Irudi digitalen tratamendua II" ikastaroa,** osteguna-ostirala, 9:00etatik 11:00etara. Gaztelaniaz.

*KzGunea, apirilean: 9:00-13:00. 943 36 14 12.*

# Santuenea Elkarteak Argazki Lehiaketa antolatu du

**Santuenea Kultur Elkarteak antolatzen duen argazki lehiaketak hirugarren edizioa beteko du aurten. Argazki bakarra aurkeztu beharko da eta udaberriarekin lotutako irudia izango da. Lehiaketan partehartzeko epea apirilaren 29an amaituko da.**



IAZKO LEHIAKETAN SARITUA IZAN ZEN ARGAZKIETAKO BAT. EGILEA: XABI IBARRA.

Hauek dira lehiaketan partehartzeko kontuan izan behar diren oinarriak:

1.- Argazki lehiaketaren lema "Udaberria" da.

2.- Lehiaketa honetan Santuenea elkarteko edozein bazkidek har dezake parte, 14 urte bete gabe baldin baditu.

3.- Izen-ematea apirilaren 10ean hasi eta aste guztian zehar egin daiteke ludotekako ordutegian.

4.- Argazki bakarra aurkeztuko da eta tamaina normalekoa izango da (bertikala edo horizontala).

5.- Lehiaketa-epaileak udaletxeko kultur departamentuko teknikaria, kultur zinegotzia eta elkarteak izendaturiko ordezkaria izango dira.

6.- Aurkeztutako argazkiak hiru mailatan sailkatuko dira: 4-8 urte bitartekoak, 8-11 urte bitartekoak eta 11-14 urte bitartekoak.

7.- Adin bakoitzeko argazki bat aukeratuko da eta bakoitza 50x50 formatuan handituko du elkarteak. Handitutako argazki horiek prentsan argitaratuko dira eta ikusgai jarriko dira leku ezberdinetan.

8.- Irabazleei formatu handiko argazki horiek emango zaizkie kuadro batean enmarkaturik eta irabazle ohartxoarekin.

9.- Lehiaketan parte hartu duten guztiei sari txiki bat emango zaie.

10.- Argazkiak aurkezteko azken eguna apirilaren 29a izango da, arratsaldeko 19:00etan. Santueneko ludotekan aurkeztuko dira argazkiak, gutunazal itxian, azalean izen abizenak eta adina jarriaz.

11.- Irabazleen izenak maiatzaren 13an jakinaraziko dira.

# Datorren astean egingo da NOAUA! Kultur Elkartearen batzarra

**NOAUA!ko bazkideen batzarra urtean behin biltzen da eta elkartearen norabidea eta egitasmoak erabakitzen dira bertan. Aurten, lehen aldiz, astean zehar egingo da batzarra, apirilaren 16an asteazkenarekin. Sutegiko Erakusketa Aretoan, arratsaldeko 19:00etatik aurrera.**

2007ko memoria eta balantze ekonomikoa aztertu eta 2008rako egitasmoak eta aurrekontuak azalduko dira apirilaren 16ko batzarrean. Iaz, batzarra NOAUA!ko egoitzan egin zen baina aurten Sutegiko Erakusketa Aretoan izango da.

Zuzendaritza batzordea osatuko duen lan taldea ere zehaztuko da apirilaren 16ko batzarrean. Gogoan izan, bazkideek urteko batzarrean onartutako egitasmoa gauzatu eta garatzen duela zuzendaritza batzordeak. Elkartearen helburuak zaintzeaz gain, elkarteko lantalde eta egitasmoetarako baliabideak antolatzeaz ere arduratzen dela.

### ETXEBIZITZA

- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 171.000 euro. 675709914.
- Zubietan 75 metro karratuko etxebizitza salgai. 2 logela, sala, komun bat, trastero txiki bat eta sukalde haundi bat. Kanpokaldera ematen du etxe osoak eta bizilagunentzako aparkalekua dauka. 210.000 euro. 690290981.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara duena. Dena berritua eta amueblatua. 49.800.000 pta!! Tf: 657 71 13 35.
- Terrenoa duen borda bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 664774024
- Terrenoa daukan baserri bat erosiko nuke. 664774024
-75.000 metro karratuko terrenoa daukan baserri bat daukat salgai. Argi indarra, telefonoa eta ura ditu. Agroturismo bat jartzeko oso egokia. 664774024.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
-Pisua salgai Atxegalden. 4 logela, bi komun, sukaldea, egongela eta trasteroa. Berritua. 53.000.000 pezeta. 696 693 710.
-Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalefazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro. Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa saltzen du partikularrak. Zubietan Elizaren ondoan dago eta etxebizitza sartzeko moduan dago. 245.000 euro. 678084020.
- Etxea salgai Kale Nagusian. 90 m. Igogailua, garajea, trasteroa. 943361383.
- Pisua salgai. Santuenean, 16 zbkia 4. pisua, 30 milioitan (negoziagarria). 667802888.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- Pisua alokatuko nuke Usurbilen. 661 702 708.
- Salgai. Kaxkoan, 3 logelako etxea trasteroarekin. Garajea aukeran. 685731792

### SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Kale Nagusian garaje itxi bat alokatzen dugu. Kotxeak sartzeko egokia, lokal moduan ez dugu alokatzen. 85 euro hilabetean. Interesatuak deitu 943361235 telefonora.
- Volswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
-Hiru ateko Honda Civic salgai. Beti garajean egondakoa. 620625823.
-5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.

### LANPOSTUAK

**Lan-eskaintzak**

- Astean 3 edo 4 egunez eta egunean 3 orduz (goizez ahal bada) pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume euskaldun baten bila gabiltza. Ordutegian flexibilitatea izatea eta auto propioa izatea baloratuko da. 607233255 / 616273785.
- LH edota DBHko ikasleei klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Udarregi ikastolan, lan hori beteko luketen pertsonekin zerrenda bat osatzen ari gara. Interesatuak pasa Ikastolatik.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tarteka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. 627278907.

**Lan-eskaerak**

- DBHko klase eta batez ere matematikako klase partikularrak emateko pertsona euskaldun baten bila nabil. 670573438.
- Sukaldaria naiz, goizez egingo nuke lan, Usurbilen bizi naiz. Autoa dut. Esperientzia asko: 669243437
-Etxekolanak egiteko, umeak edo pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. Esperientziduna, informeak dauzka. Interesatuak deitu 943834895 / 650814429
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620 646 769.

### BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Musika ekipo bat salgai: mahaia, etapak, ahots efektuak... egokia talde baten lokalean jartzeko. Larra DJ 615713204.

Euskal arrazako bi pottoka salgai: kalifikatuak eta udaberriak umea egingo dutenak. 653719176

- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220925
- Martxoaren 15ean zilar kolorezko eskumuturrekoa brazalete itxurakoa galdu nuen. Barrukaldean "uno d 50" jartzen du. 943 36 52 61
- Martxoak 9an Usurbilgo frontoian xira txuri-gorri bat galdu dut. Aurkitu baduzu: 943130036.
- Antzerki txikia egitera etorriko zarenari. Ostegunean 20:30 elkartu gaitezke, baina, beste toki batean hitz egingo dugu. 943 36 03 21
- Otsailaren 24an Igeldo inguruan Pastor Aleman eme gazte bat galdu dugu. Bikote batek hartu zuela uste dugu. Txipa eta indentifikazio plaka ere badauka. 943210330.
- Gizon edo emakume baten bila nabil, apirilean antzerki txiki bat egiteko. 943360321.
-Naranja eta gorri koloreko bi raketa galdu ditugu; bat handia, bestea txikia. 692 837 951.
- Abenduaren 4an giltzak galdu nituen giltzatako beltz batekin. Aurkitu badituzu: 685 72 56 81.
-Usurbilgo gazte kuadrila bat gara eta lokal bat alokatu nahi genuke herrian. 943360744.
- Kotxeko aulkitxoa salgai. Maxi Cosi Priori XP. 80 euro, erdi prezioan. 652 764 620.
- Egurrezko aulkiak salgai. Aritz egurrez eginikoak. 943 36 20 49.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net

### HILDAKOAK



**Jesus Mari Iribar Añorga.**
2008ko martxoaren 31n hil zen 50 urte zituela.

### HILDAKOAK



**Maria Iruretagoiena Etxabe**
Apirilaren 5ean hil zen 72 urterekin, Zubieta.

### HILDAKOAK



**Antonia Martikorena Azpillaga**
Apirilaren 6an hil zen 86 urterekin, Kaleberri

## ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Plis, Plas, Txalo eta Jolas, ...

Asko dugu esateko. Baina zure laguntza ere premiazkoa da.

## Bazkide egin zaitez! Noaua!!

### 36 euro urte osorako

Izena: ____________________
1.Abizena: ____________________
2.Abizena: ____________________
Helbidea: ____________________
Herria: ____________________
Telefonoa: ____________________
E-posta: ____________________
Kontu korrontea: ☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐ ☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.




Alex Arregi · Gotzon Barandiaran
Aintzina Lekue · Gorka Muguruza
Gorka Urbizu · Nerea Urbizu

**Apirilak 17, osteguna**

Kontzertua:

# KATAMALO.

Bihotz Bakartien Kubla

# 20:00h

Sutegi Kultur Etxeko Auditorioan

**Sarrera:** Sarrerak aldez aurretik erosita 5€
(Txirristran eta Noaua!ko egoitzan salgai).
Egunean bertan 6€.
Noaua!ko bazkideek 4€tan erosi ahal
izango dute Noaua!ko egoitzan eta
aldez aurretik eskuratzen badute.

**Antolatzailea:** Noaua! Kultur Elkartea
**Laguntzailea:** Usurbilgo Udala

# TXOTX!!


AIALDE BERRI
Tel.: 943 365 031
Mugikorra: 670 027 731
Santuenea


LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA
Urtarriletik apirilera
TXOTX GARAIA
Ostiral, larunbat eta igande
eguerdietan IREKITA
Astelehenetan ITXITA
Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani
Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867


SAIZAR
Betiko Sagardoa
Kalezar Auzoa, 39 • USURBIL • Tel. 943 362 228
www.sidrassaizar.com


ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA
Urte guztian irekita astelehena izan ezik.
Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81


ERRETEGIA • NEKAZALTURISMOA
ARRATZAIN
DOLARE-SAGARDOTEGIA
Egunero irekia.
info@agroturismoarratzain.com
Arratzainzar Baserria • Telf: 943 36 66 63


943 36 12 29
iruin
sagardotegia
Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com


Aginaga
Sagardotegia
Urte osoan txotxetik
Estrata kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel. eta Faxa: 943 36 67 10
Tel.: 943 37 06 68
a.sagardotegia@aginagasagardotegia.com